Domingo 12.12.10
EL DIARIO VASCO

«Iruditzen zait '3 Mariak' dela idatzi dudan nobelarik alaiena»

Arantxa Urretabizkaia Idazle eta kazetaria

Zahartzaro eredu berri baten inguruko gogoeta egin du idazleak, 80 urte inguruko hiru Maria bere azken eleberriko protagonista bilakatuta

NEREA AZURMENDI

Arantxa Urretabizkaiaren 'Saturno'(1987) eta 'Koaderno gorria' (1998) eleberrien artean hamaika urteko tartea egon zen. 'Koaderno gorriaren' eta aurkeztu berri duen '3 Mariak' nobelen artean, hamabikoa. 1947.ean Donostian jaiotako idazle eta kazetariak maiz argitu izan du bere nobelen arteko isilune luze horiek zerikusi zuzenagoa dutela eguneroko bizimodua ateratzeari lotutako lanei eman behar dien denborarekin literaturgintzari heltzeko modu jakin batekin baino. 80 urte inguruko hiru emakumeren gorabeheren inguruko azken eleberria, hain zuzen, denbora luzean ondu du, eseri, idazteari serio ekin eta nobela bukatzeko tartea aurkitzea dezente kostatu bazaio ere.

–Nobelarik argitaratu gabe igaro duzun bolada luzean, argi zenuen orain aurkeztu duzun hau izango zela zure hurrengo eleberria?

–Bai. 'Koaderno gorria' atera bezain laster neukan argi hurrengoan zaharren kontu bat egingo nuela. 'Zergatik Panpox'-ek erakutsi zidan irakurle arruntak pentsatzen duela lehen pertsonan kontatutakoak zuk bizitakoak direla, zure barrura begiratzeko zirrikitu bat irekitzen diozula. Jendeak uste du ama bazara isla dezakezula amatasuna zure lanean, baina kontrakoa ere izan daiteke: nahiz eta ama ez izan, idazten duzun bitartean bizi dezakezu amatasuna. Zentzu horretan, pentsatu nuen zahar kontu bat planteatzeak lagunduko ninduela nik zer demontreko zahartzaroa nahi nuen erabakitzen.

–Nobelako protagonistek bizi dutena bada, konplexurik gabeko zahartzaro libre samarra gustatuko litzaizuke, osasun eta diru arazo handirik gabea. Ez al da zahartzaroaren ikuspegi idilikoegia?

–Ez dakit, hori irakurleak esan behar dut, baina nik ez dut soziologia egiten, ez dut esan nahi zahar guztiak horrelakoak direnik. Literatura denez, nahikoa dut sinesgarria izatearekin... Egia da protagonistak ondo daudela osasunez, badutela etxe bat, ez daukatela diru arazorik, modu oso xumean bizi badira ere... Hala ere, emakume horiek hartu dituzten erabakiak iruditzen zaizkit interesgarriak. Esate baterako, elkarrekin bizitzen jartzea eta etxea partekatzea. Badaude edadeko emakumeak bakoitza bere etxean bakarrik bizi direnak, baliabide oso gutxirekin. Emakume horiei ez zaie bururatzen bakoitza bere pisuan bizi beharrean elkartzea eta pisuak, beldurrak, laguntza sozialak eta baliabideak partekatzea? Agian gaurko belaunaldia ez da oraindik gauza hori egiteko, baina gauzal alda daitezke. Behin deitu ninduten Diputaziotik zahartzaroari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartzera, eta han bota nien gaiari buruz pentsatzen nuena, abisatu nien ez dezatela espero etorkizuneko zahartzaroa izango dela gaur bezalakoa. Guk gerra emango dugu azkenera arte, hori seguru daukat.

–Zuek, gaztaroaren erabateko apologia egin zenuten belaunaldikook.

–Bai, bai, bai... Nire belaunaldiak egin zuen hori, eta agian horregatik tokatzen zaigu orain guri zahartzaroa erreibindikatzea.

–Zahartzaro mota jakin bat, alegia.

–Azken batean, zimurrak kenduta, zer da gazte izatea? Zer da zahar izatea? Zer lotu diezaiokegu gazte izateari? Ilusioa, arriskuarekiko beldurrik eza, ausardia... Nik horiek guztiak nahi ditut, ez dut uste gaztetasun seinale direnik. Gure gizarteak lotuegia du adin jakin bat erantzun jakin batekin, horregatik esaten dut nik nortasun agiriak ez duela nire bititza gobernatuko.

–Ari al da zahartzaroaren ikuspegi berri hori hedatzen?

–Uste dut zahar izateko modu tradizionala desagertu dela, eta modu berriaren zantzuak azaltzen ari direla han-hemenka, baina oraindik ez dugu osatu 'corpus' bat. Salbuespenak daude, baina ez dira oraindik hedatutako ereduak. Eleberriko istorioa, seguru asko, horietako salbuespen batean dago kokatua.

–Hala ere, ez zaie erraza gertatzen salbuespenean bizitzea. Inguruak presio handia egiten die.

–Bai, inguruaren presioa oso baldintza potentea da. Emakumeei ere gertatzen zaigu: egiten ez ditugun gauza gauza asko ez dizkigute debekatzen, ez ditugu egiten ez garelako ausartzen. Eleberrian ere horrelako zerbait gertatzen da. Txuri ausartzen da besteak, Gorrik, urratzen duelako bidea, haren arrimuan jartzen delako, baina hala ere jendeari ez zaio gustazen haien hautua, eta era guztietako presioak jasango dituzte. Dena den, une askotan hil ala bizikoa da besteen begiei kasurik ez egitea. Ni ahalegintzen naiz eguneroko bizitzan ere miopea izaten. Ez dut ikusten ikusi nahi ez dudana, eta ikusten badut ere ez ikusiarena egiten dut...

–Zahartzeak liberazio puntu bat dakarrela esan duzu. Presioetatik libratzeko ere balio du?

–Bai, niretzat horrela da. Gure gizonak esaten dit askotan gauza tristeak idazten ditudala, nahiz eta ni ez izan batere tristea. Alde horretatik, uste dut '3 Mariak' dela idatzi dudan eleberririk alaiena. Ez dakit nola atera zaidan horrela, baina alaia da.

–Adinagatik izango da, agian.

–Ez zait okurritu, baina baliteke.. Ni beti izan naiz lotsagabe samarra, baina orain egiten dut ateratzen zaidana. Beti harritzen naiz entzuten ditudanean beste idazle batzuk hain luze hitz egiten idazten dutenari buruz. Nola idazten dugun kritikoek eta irakurleek esan behar dute, baina agian liberazio puntu hori islatu da liburuan.

–Ez al zaizu deigarria iruditzen urtetan aurrera doazen euskal idazleek zein gutxi idazten duten adinkideei gertatzen zaizkien kontuez?

–Bai, beti iruditu izan zait bitxia hainbat idazlek atzera begiratzeko daukaten mania hori, haurtzaroko eta gazte garaiko kontuak gora eta behera. Dena den, uste dut ideologia kontua ere badela. Hau idazten pasa ditudan urteetan hasi dira ateratzen han eta hemen zaharren gauzak. Beti esaten nuen 'kaka zaharra, orain atzetik joango naiz', baina gero ikusi dut idazle oso gazteek ere zahartzaro ezin tradizionalagoa islatu dutela, eta nik uste dut zahartzaroari buruzko ideologia falta zaigulako gertatzen dela hori.

–Ideologia kontua ez ezik, pedagogia falta ere izan daiteke?

–Hori da. Ez dugunez beste eredurik ikusi, ezta bilatu ere eta, ez diegu tradizionala ez den beste eredurik erakutsi. Gainera, gure adineko jendeak ez duenez gure adineko jendeaz idazten, ez diegu erreferentziarik eskaintzen.

«Zahar izateko modu berriaren zantzuak ari dira azaltzen, baina ez dira oraindik hedatu»

«Beti iruditu izan zait bitxia hainbat idazlek atzera begiratzeko duten mania hori»

«Nortasun agiriak ez du nire bizitza gobernatuko», dio Arantxa Urretabizkaiak. NAGORE IRAOLA